



ABALTZISKETA

2018ko MAIATZAREN 17KO OHIKO BILKURAKO AKTA

Organoa: Abaltzisketako Osoko Bilkura.

Lekua: Abaltzisketan

Ordua: 19:00etan

Deialdia: Lehenengoa

Bildutakoak: Jon Zubizarreta. Alkatea

Kepa Gorostidi .Zinegotzia

Aritz Garmendia .Zinegotzia

Jose Mari Egunez .Zinegotzia

Idazkaria: Nekane Lopetegi

GAI ZERRENDA

1. 2018-02-13ko bilkurako akta onartzea hala balegokio.
2. Ñañarriren kudeaketa lanaren esleipena onartzea.
3. Ñañarriren eraberritze proiektua onartzea.
4. 2018/02 kreditu aldaketa onartzea.
5. Eskola eta Ostatuaren handipena lanen esleipena onartzea.
6. 2017ko likidazioa eta Kontu Orokorra onartzea.
7. Alkateak eman dituen ebazpenen berri ematea 2018-06tik 2018-21 arte.
8. San Juanetako eskaerak, hainbat postu jartzeko gunearen inguruan dagokiona erabakitzea.
9. Galderak eta eskaerak.

1- 2018-02-13 BILKURAKO AKTA ONARTZEA HALA BALEGOKIO.

Alkateak bilerari hasera eman ondoren, 2018-02-13 Bilkura aktaren izenburuak irakurtzeari ekiten zaio. Bertan, hitzez hitz irakurtzen ez bada ere, izenburuak komentatu eta laburtzen dira. Mahaikideen aldetik aurkakorik esan ez denez, dagoen bezala onartutzat eman da.

Abaltzisketako Udala. San Juan Enparantza z/g. 20269 Abaltzisketa (Gipuzkoa)

Tel.: 943 65 29 00 – Fax: 943 65 28 75

web orria: www.abaltzisketa.eus. E-mail: udala@abaltzisketa.eus



ABALTZISKETA

2- ÑAÑARRIREN KUDEAKETA LANAREN ESLEIPENA ONARTZEA.

Administrazio-espedientea bideratu da Ñañarri udal eraikinean zenbait berrikuntza eta hornikuntza lanak egin ostean, kudeaketa ustiatzeko administrazio-kontratu berezia esleitze aldera.

Kontratazio Mahaiak esleipen-proposamena egin du, proposamen bakarra aurkeztu da eskaintzaren alde, erabaki proposamena luzatu du zuzentzen duen administrazio-klausulen agirian ezarritako baremoarekin bat etorritz.

Udala bere aldetik ere, Ñañarriren egoerari irtenbidea eman nahiean interesa du, proposamen honekin aurrera jarraitzea. Horregatik,

ERABAKI DU:

LEHENENGOA. Lizitazioa baliozkotzat jotzea eta Alexandra Egunez Zalakain andreari esleitzea, hileroko 100,00 eurotako, B.E.Z.a kanpo, Ñañarri ustiatzeko administrazio-kontratu berezia.

BIGARRENA. Eskatutako dokumentu gutziak aurkeztu dira.

HIRUGARRENA. Alkate jaunari/andreari ahalmena ematea kontratua gauzatzeko dagokion administrazio-agiria egiletsi dezan.

LAUGARRENA. Erabaki hau esleipendunari eta lizitatzaillei jakinaraztea eta, aldi berean, kontratatzailearen profilean argitaratzea. Esleipendunari, orobat, errekerimendua egingo zaio, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak –Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina onetsi duenak, SPKLTB– 151.4. artikuluan agintzen duenarekin bat etorritz, lizitatzaillei eta hautagaiei egin zaien esleipen-jakinazpena jaso eta biharamunetik hasita, beranduenik, hamabost egun baliodunetan kontratua gauzatu dezan.

3- ÑAÑARRIREN ERABERRITZE PROIEKTUA ONARTZEA.

Abaltzisketako Udaleko jabetzako den Ñañarri eraikuntzan, HOTELA, TABERNA, JATEXEA, HARRERA GUNEA ETA BESTE ZERBITZUEN



ABALTZISKETA

ESKAINZA TURISMOA SUSTATZEKO exekuzio proiektua mahairatu da onarpena emateko.

Euskadiko landa garapena eta sustapenaren inguruko laguntzak, 2018ko maiatzaren 8ko Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitara eman dela eta, Abaltzisketako Udalaren jabetzako ÑAÑARRI eraikinean, egin behar diren egokitzapen hobekuntza eta ekipamendu lanak burutzeko, eskaerarekin batera proiektuari onarpena eman izanaren egiaztagiria eskatzen dela ikusi eta.

Proiektuaren kostua, osotasunean, B.E.Z.a kanpo 430.135,02 eurotako izanik.

Eta guztiaren ondoren, ERABAKITZEN DA:

1. Abaltzisketako Udalaren jabetzako eraikina den ÑAÑARRIN, HOTELA, TABERNA, JATETXEA, HARRERA GUNEA ETA BESTE ZERBITZUEN ESKAINZA TURISMOA SUSTATZEKO exekuzio proiektuari onarpena eman zaio. Eta honen aurrekontua, 430.135,02 eurotako dela, B.E.Z.a kanpo.

4- 2018/02 KREDITU ALDAKETA ONARTZEA.

Udal zerbitzuek dituzten premiei eta obligazioei aurre egiteko, beharrezkoa da hainbat gastu berehala egitea. Izan ere, horiek atzeratuz gero sortuko litzatekeen kalteak eragin nabarmena izango luke zerbitzuen kalitatean. Aurrekontuaren exekuzioaren arabera, ordea, gastu partidetan ez dago nahiko krediturik aipatutako gastuei aurre egiteko. Ondorioz, kredituak sortzeko edo, hala badagokio, gehitzeko proposatzen da, ondoko taulako xehetasunaren arabera:

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egunoak	Aldaketak	Behin betikoak

Abaltzisketako Udala. San Juan Enparantza z/g. 20269 Abaltzisketa (Gipuzkoa)

Tel.: 943 65 29 00 – Fax: 943 65 28 75

web orria: www.abaltzisketa.eus. E-mail: udala@abaltzisketa.eus



ABALTZISKETA

1 0000.623.171.00.01 2018	ZERB.FUNTZ.INBERTS: ZAMAOKO PARKEAREN KO	0,00	1.361,21	1.361,21
1 0000.212.323.00.01 2018	MAKINARIA KONPONKETA: ESKOLA	100,00	804,91	904,91
1 0000.220.920.00.02 2018	PRENTSA, ALDIZKARI ETA ZENBAIT LIBURU	300,00	795,03	1.095,03
1 0000.623.341.00.01 2018	ZERBITZ.FUNTZION.INBERTS: GIMNASIOKO MAK	0,00	1.500,00	1.500,00
1 0000.626.920.00.01 2018	ZERBITZ.FUNTZION.INBER: ORDENAGAILU BERR	0,00	405,00	405,00
1 0000.692.412.00.01 2018	MALLOA	3.000,00	1.536,40	4.536,40
1 0000.622.933.00.01 2018	ZERB.FUNTZ.INBERT.GASTUAK: ÑAÑARRI MANTE	0,00	26.620,00	26.620,00
GUZTIRA		3.400,00	33.022,55	36.422,55

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 0000.870.931.00.01 2018	GERAKINA	33.022,55
FINANTZAKETA GUZTIRA			33.022,55

AURREKONTU EGONKORTASUNAREN ETA FINANTZA IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK ETA GASTU ARAUA BETETZEARI BURUZKOA

2018. URTEKO AURREKONTUA

ARAUDI APLIKAGARRIA

Abaltzisketako Udala. San Juan Enparantza z/g. 20269 Abaltzisketa (Gipuzkoa)

Tel.: 943 65 29 00 – Fax: 943 65 28 75

web orria: www.abaltzisketa.eus. E-mail: udala@abaltzisketa.eus



ABALTZISKETA

- * 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.
- * 1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena.
- * Diputatuen Kontseiluaren Akordioa, 2017(e)ko azaroaren 7(e)an, Jarraibidea onartzen duena finantza tutoretzaren eskumena garatzeko Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan.

FORU ARAUAREN 1.2.a) ARTIKULUKO ENTITATEAK (administrazio izaera dutenak)

ENTITATE 1. ZERRENDA:

1. ABALTZISKETA
- 2.
- 3.
- 4.

2. HELBURUAK BETETZEARI BURUZKO EGIAZTAPENA

Aurrekontuen egonkortasuna

Entitate honen finantzaketa ahalmena/premia, SEC Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarraren arabera, honako hau izatea espero da 2018. urtean:

Defizita: 93.252,21

Ondorio horretarako, ez denez aurreikusten ondorengo doikuntzarik beharko duen eragiketa adierazgarririk, kalkulu hori 1etik 7ra bitarteko kapituluetakoa sarreraren eta 1etik 7ra bitarteko kapituluetakoa gastuen arteko diferentziaren bitartez egin da, goian zerrendatutako entitateen kontuak bateratuta.

2018. urterako ezarritako helburua defizita zero izatea da.

Abaltzisketako Udala. San Juan Enparantza z/g. 20269 Abaltzisketa (Gipuzkoa)

Tel.: 943 65 29 00 – Fax: 943 65 28 75

web orria: www.abaltzisketa.eus. E-mail: udala@abaltzisketa.eus



ABALTZISKETA

Hori dela eta, toki entitate honek ez du betetzen aurrekontu egonkortasunaren 2018. urterako helburua.

Finantzen iraunkortasuna

2018-12-31n, goian zerrendatutako entitateen zor bizia, guztira, honako hau izatea espero da, 2017. urteko sarrera arrunten aldean:

Zor bizia: %0,00

Kalkulua egiteko, 2017-12-31ko zor biziaren zenbatekotik abiatu gara, indarrean ziren eragiketa guztiak kontuan hartuta, bai epe luzekoak, bai epe laburrekoak, abaletatik eratorritako arriskua barne.

Emaitzari gehitu zaizkio hitzartu diren eta erabili gabe dauden eragiketak eta 2018. urtean aurreikusitakoak, eta kendu zaizkio 2018. urterako aurreikusitako amortizazioak.

Zor biziaren zenbatekoan ez dira sartu UFFFarengatik itzuli gabe gelditzen diren saldoak.

2018. urterako ezarritako helburua zor bizia %75 baino handiagoa ez izatea da.

Hori dela eta, toki entitate honek betetzen du finantza iraunkortasunaren 2018. urterako helburua.

Gastuaren araua

2018. urtean gastu konputagarria eta gastuaren muga honako hauek izan dira:

Gastu konputagarria:	474.850,21
Gastuaren muga:	288.673,73
Diferentzia:	186.176,48
DGrekin finantzatutako obligazioak:	93.252,21

Aurreko kalkulua egiteko, goian zerrendatutako entitateen datu bateratuak erabili dira, ondoko taulan xehatzen den moduan:

	2018	2017
Gastu ez finantzarioak (1-7 kapituluak)	502.250,21	350.609,13

Abaltzisketako Udala. San Juan Enparantza z/g. 20269 Abaltzisketa (Gipuzkoa)

Tel.: 943 65 29 00 – Fax: 943 65 28 75

web orria: www.abaltzisketa.eus. E-mail: udala@abaltzisketa.eus



ABALTZISKETA

Zorraren interesak	0,00	0,00
SEC doikuntzak	0,00	0,00
Admin. publikoen ekarpen finalistekin finantzatutako gastua	27.400,00	68.701,19
Gastu konputagarria	474.850,21	281.907,94

Gastuaren hazkundearen muga:	%2,40
Araudiaren aldaketan eragina:	0,00
Gastuaren muga	288.673,73

Hori dela eta, toki entitate honek ez du betetzen 2018. urterako gastuaren araua.

3. ONDORIOAK

Toki entitate honek ez ditu betetzen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren arloetan 2018. urterako ezarritako helburuak edota gastu araua. Likidazioan egoera hori berretsiko balitz, toki entitate hau behartuta legoke plan ekonomiko finantzarioa onartzera. Aipatutako planak ahalbideratu behar du urteko ekitaldian eta hurrengoan defizitaren helburua eta gastu araua betetzea, eta 2020an zor bizia sarrera arruntan %70 edo txikiagoa izatea. Plan hori Udaltzari aurkeztu beharko zaio hilabeteko epean, gehiena jota, likidazioaren espedientea onartzen denetik kontaktzen hasita; bi hilabeteko epean onartu beharko da, gehiena jota, aurkezten denetik kontaktzen hasita; eta martxan jarri beharko da hiru hilabeteko epean, gehiena jota, likidazioaren espedientea onartzen denetik kontaktzen hasita.

.....(e)n, 201....(e)koaren(e)an.

Kontu-hartzailea

Lehena.- 2018/02 zenbakia duen kreditu aldaketari behin behineko onarpena ematea.

Bigarrena.- Udal Erregimenari buruzko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 1/1985 Legeko 112.3 artikuluan, Udal Entitateen Aurrekontuari buruzko otsailaren 26ko 4/1991 Foru Araueko 15.1 artikuluan eta Udal Entitateen Aurrekontuaren Araudia onartzen duen abenduaren 1eko 96/1992 Foru Dekretuko 19.1 artikuluan ezarritakoa betez, hamabost egunetan jendaurrean jartzea, dagokionak bere alegazioak tarteratu ditzan.

Abaltzisketako Udala. San Juan Enparantza z/g. 20269 Abaltzisketa (Gipuzkoa)

Tel.: 943 65 29 00 – Fax: 943 65 28 75

web orria: www.abaltzisketa.eus. E-mail: udala@abaltzisketa.eus



ABALTZISKETA

Hirugarrena.- Jendaurreko epealdia iragan eta alegaziorik tarteratu ezean, behin betikotzat onartuta ematea, erabaki berririk hartu beharrik gabe.

5- ESKOLA ETA OSTATUAREN HANDIPENA LANEN ESLEIPENA ONARTZEA

Abaltzisketako Udalak, Leader 2017 deialdiaren aurrean, OSTATUA ETA ESKOLAREN HANDIPEN PROIEKTUA aurkeztu zuen, diru-laguntza eskatzeko. Eskararen aurrekontua 60.193,57 eurotako da B.E.Z.a barne. Eta onartutako diru-laguntza 27.087,11 euro izan dira, hau da eskatutako aurrekontuaren %45a.

Inbertsio honetatik, egindako gastua 1.027,57 euro dira arkitektoaren ordainsariak ordaintzeko.

2018urterako, kredituen inkorporazioa eginez, 59.166,00 eurotako aurreikuspena dago.

Obra burutzeko, gonbiteak egin dira eta jaso diren proposamenak ondorengoak dira:

Anduitz	52.481,46€ B.E.Z.a barne
Goiuri.....	54.417,94€ B.E.Z.a barne
Zuzen eraikuntzak.....	53.853,81€ B.E.Z.a barne

Beraz, hiru proposamen ekonomiko hauetatik ERABAKI DA:

1. Anduitz eraikuntzari, obra esleitzea, 52.481,46 eurotan, B.E.Z.a barne.

6- 2017KO LIKIDAZIOA ETA KONTU OROKORRA ONARTZEA.

2017 ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa eta kontu orokorra mahairatu dira behin behineko izaerarekin onarpena emateko.



ABALTZISKETA

Idazkariaren txostenak honela dio:

Udal honetako Kontuhartzaileak, 2017ko aurrekontuaren likidazioari buruz ondorengo txostena egin du, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan jasotakoa betez:

TXOSTENA

Udalbatzarrak 2016ko abenduaren 15ean hartutako erabakiaren bidez onartu zuen Udal honen 2017(e)ko aurrekontua. Aurrekontu horrek jasotako ordainketa kredituen zenbatekoa, eta ekitaldian zehar onartutako aldaketena, ondoko taulan xehetzen da:

Hasierako aurrekontua:.....	404.506,00
Kreditu gaikuntzak:.....	0,00
Kreditu	0,00
Baliogabetzearen ziozko bajak:.....	0,00
Kreditu Gehigarriak:.....	41.469,56
Behin betiko aurrekontua:.....	<hr/> 445.975,56

Aurrekontu horren exekuzioan ondorengo hauek azpimarratu behar dira:
Ezer gutxi nabarmentzeko

1.- NORAINO GAUZATU DEN GASTUEN AURREKONTUA

Goian adierazi diren ordainketa kredituen kargura onartutako obligazioak ondokoak dira, portzentajetan eta kapituluka, aurtengo ekitaldian nahiz aurreko urtekoan:



ABALTZISKETA

KAPITULUA	2017 EKITALDIA			2016 EKITALDIA		
	BEHIN BETIKO AURREKONTUA	OBLIGAZIO ONARTUAK	%	BEHIN-BETIKO AURREKONTUA	OBLIGAZIO ONARTUAK	%
1 - Pertsonal gastuak	158.963,00	158.936,72	99,98	153.730,00	153.766,00	100,02
2 - Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan	99.755,59	76.752,54	76,94	93.257,00	80.056,85	85,85
3 - Finantza gastuak	100,00	0,00	0,00	600,00	3,08	0,51
4 - Transferentzia arruntak	54.070,10	49.422,79	91,41	51.175,40	44.015,97	86,01
5 - Kreditu globala eta bestelako ustekabeak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
6 - Inbertsio errealak	123.916,87	61.750,87	49,83	188.940,61	163.932,64	86,76
7 - Kapital transferentziak	5.500,00	3.746,21	68,11	5.500,00	2.924,87	53,18
8 - Finantza aktiboak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
9 - Finantza pasiboak	3.670,00	3.660,45	99,74	7.410,00	7.319,40	98,78
GUZTIRA	445.975,56	354.269,58	79,44	500.613,01	452.018,81	90,29

Bereziki, gauzatutakoaren portzentajeak guztizkoaren aldean daukan garrantzi kuantitatiboa dela-eta, ondoko partidak nabarmendu behar dira:

Ezer gutxi nabarmentzeko

6. kapituluak (Inbertsio errealak) honako gauzatze portzentajea agertzen du, faseen arabera, aurtengo ekitaldian nahiz aurrekoan:

GAUZATZE FASEA	2017 EKITALDIA		2016 EKITALDIA	
	ZENBATEKOA EUROTAN	KREDITUEN GUZTIZKOAREN %	ZENBATEKOA EUROTAN	KREDITUEN GUZTIZKOAREN %
Obligaciones reconocidas (Fase O)	61.750,87	49,83	163.932,64	86,76
Gastos dispuestos (Fase D)	61.750,87	49,83	163.932,64	86,76
Gastos autorizados (Fase A)	61.750,87	49,83	163.932,64	86,76
Total créditos	123.916,87	100,00	188.940,61	100,00

Beraz, oro har esan daiteke gauzatze portzentajea txikia izan dela.

2.- NORAINO BURUTU DIREN OBLIGAZIO ONARTUAK

Aurrekontuko obligazio onartuengatik ordainketek (beraz, itxitako ekitaldietakoak sartu gabe) ondoko portzentajeak agertzen dituzte kapituluka, bai aurtengo ekitaldian bai aurrekoan ere:



ABALTZISKETA

KAPITULUA	2017 EKITALDIA			2016 EKITALDIA		
	OBLIGAZIO ONARTUAK	ORDAINKETA LIKIDOAK	%	OBLIGAZIO ONARTUAK	ORDAINKETA LIKIDOAK	%
1 - Pertsonal gastuak	158.936,72	158.936,72	100,00	153.766,00	153.766,00	100,00
2 - Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan	76.752,54	70.816,02	92,27	80.056,85	76.579,84	95,66
3 - Finantza gastuak	0,00	0,00	0,00	3,08	3,08	100,00
4 - Transferentzia arruntak	49.422,79	47.201,36	95,51	44.015,97	39.543,28	89,84
5 - Kreditu globala eta bestelako ustekabeak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
6 - Inbertsio errealak	61.750,87	56.486,38	91,47	163.932,64	86.568,53	52,81
7 - Kapital transferentziak	3.746,21	3.746,21	100,00	2.924,87	2.924,87	100,00
8 - Finantza aktiboak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
9 - Finantza pasiboak	3.660,45	3.660,45	100,00	7.319,40	7.319,40	100,00
GUZTIRA	354.269,58	340.847,14	96,21	452.018,81	366.705,00	81,13

Bereziki, beren garrantzi kuantitatiboa ikusirik, ondorengo partidak nabarmentzekoak dira:
Ezer gutxi nabarmentzeko .

Beraz, oro har esan daiteke aurrekontuaren gauzatze portzentajea oso handia izan dela.

3.- NORAINO GAUZATU DEN SARREREN AURREKONTUA

Ondoko taulan jaso dira sarrerren aurreikuspenetan izan diren desbiderapenak, hau da, behin betiko aurreikuspenen eta benetan likidatutako eskubideen arteko aldea, kapituluka, azken bi ekitaldietan, bai balio absolutuetan bai portzentajetan:

KAPITULUA	2017 EKITALDIA			2016 EKITALDIA		
	BEHIN BETIKO AURREIKUSPENAK	ESKUBIDE ONARTUAK	%	BEHIN BETIKO AURREIKUSPENAK	ESKUBIDE ONARTUAK	%
1 - Zuzeneko zergak	51.950,00	48.944,86	94,22	50.700,00	48.750,63	96,16
2 - Zeharkako zergak	5.000,00	2.927,12	58,54	5.000,00	10.232,81	204,66
3 - Tasak eta bestelako zergak	30.412,17	33.762,84	111,02	30.690,00	29.993,26	97,73
4 - Transferentzia arruntak	306.056,00	309.317,10	101,07	297.376,00	299.287,63	100,64
5 - Ondare sarrerak	9.910,00	28.774,93	290,36	12.717,61	19.470,92	153,10
6 - Inbertsio errealak besterenganazetik eta hirigintzako jardueretatik ondori	0,00	787,50	787,50	0,00	0,00	0,00
7 - Kapital transferentziak	31.180,32	37.523,51	120,34	104.129,40	112.939,34	108,46
8 - Finantza aktiboak	11.467,07	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
9 - Finantza pasiboak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
GUZTIRA	445.975,56	462.037,86	103,60	500.613,01	520.674,59	104,01

Bereziki, gauzatze portzentajeak guztizkoaren aldean daukan garrantzi kuantitatiboa ikusirik, ondoko kontzeptuak nabarmentzekoak dira:

Abaltzisketako Udala. San Juan Enparantza z/g. 20269 Abaltzisketa (Gipuzkoa)

Tel.: 943 65 29 00 – Fax: 943 65 28 75

web orria: www.abaltzisketa.eus. E-mail: udala@abaltzisketa.eus



ABALTZISKETA

Ezer gutxi nabarmentzeko .

Beraz, oro har esan daiteke exekuzioaren portzentajea oso handia izan dela.

4.- NORAINO BURUTU DIREN ESKUBIDE ONARTUAK

Aurrekontuko eskubide onartuengatik egindako kobrantzek (beraz, itxitako ekitaldietakoak sartu gabe) ondoko portzentajeak agertu dituzte kapituluka, aurtengo ekitaldian nahiz iazkoan:

KAPITULUA	2017 EKITALDIA			2016 EKITALDIA		
	ESKUBIDE ONARTUAK	KOBRANTZA LIKIDOAK	%	ESKUBIDE ONARTUAK	KOBRANTZA LIKIDOAK	%
1 - Zuzeneko zergak	48.944,86	47.987,59	98,04	48.750,63	47.814,27	98,08
2 - Zeharkako zergak	2.927,12	2.927,12	100,00	10.232,81	10.232,81	100,00
3 - Tasak eta bestelako zergak	33.762,84	26.502,98	78,50	29.993,26	21.825,98	72,77
4 - Transferentzia arruntak	309.317,10	309.317,10	100,00	299.287,63	299.287,63	100,00
5 - Ondare sarrerak	28.774,93	26.624,93	92,53	19.470,92	17.270,36	88,70
6 - Inbertsio errealak besterenganatetik eta hirigintzako jardueretatik ondori	787,50	787,50	100,00	0,00	0,00	0,00
7 - Kapital transferentziak	37.523,51	37.523,51	100,00	112.939,34	44.739,41	39,61
8 - Finantza aktiboak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
9 - Finantza pasiboak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
GUZTIRA	462.037,86	451.670,73	97,76	520.674,59	441.170,46	84,73

Bereziki, beren garrantzi kuantitatiboa ikusirik, ondoko kontzeptuak nabarmentzekoak dira:
Ezer gutxi nabarmentzeko .

Beraz, oro har esan daiteke aurrekontuaren gauzatze portzentajea oso handia izan dela.

5.- NORAINO BURUTU DIREN ITXITAKO EKITALDIETAN ORDAINDU GABEKO SALDOAK

Itxitako ekitaldietan ordaindu gabeko saldoetatik honako hauek ordaindu dira aurtengo ekitaldian, zorren sorburu-urtearen arabera:

SORBURU URTEA	HASIER.SALDOA URTARR. 1EAN	DEUSEZTAPEN BAJAK	ORDAINKETA LIKIDOAK	ORDAINTZEKE BUKAER. SALD.	ORDAINKETA PORTZENTAJE A
2015	3.448,50	3.448,50	0,00	0,00	0,00
2016	85.313,81	0,00	85.313,81	0,00	100,00
GUZTIRA	88.762,31	3.448,50	85.313,81	0,00	96,11



ABALTZISKETA

Abenduaren 31n ordaindu gabe zeuden saldoen artean, garrantzi kuantitatiboa dutenez, ondoko partidak azpimarratu behar dira:

Ezer gutxi nabarmentzeko .

6.- NORAINO BURUTU DIREN ITXITAKO EKITALDIETAN KOBRATU GABEKO SALDOAK

Itxitako ekitaldietan kobratu gabeko saldoetatik, honakoak kobratu dira aurtengo ekitaldian, zorren sorburu-urtearen arabera:

SORBURU URTEA	HASIER.SALDOA URTARR. 1EAN	DEUSEZTAPEN BAJAK	KOBRANTZA LIKIDOAK	KOBRATZEKE BUKAER.SALD.	KOBRANTZA-PORTZENTAJE A
2014	262,12	0,00	103,93	158,19	40,00
2015	675,45	0,00	311,79	363,66	46,00
2016	79.504,13	0,00	79.220,48	283,65	100,00
GUZTIRA	80.441,70	0,00	79.636,20	805,50	99,00

Abenduaren 31n kobratu gabe zeuden saldoen artean, garrantzi kuantitatiboa dutenez, ondoko partidak azpimarratu behar dira:

Ezer gutxi nabarmentzeko .

7.- DIRUZAINZAKO GERAKINAREN BIDEZ FINANTZATUTAKO OBLIGAZIOAK

Aurtengo ekitaldiaren barruan hainbat kreditu aldaketa onartu da, lehen adierazitakoaren arabera. Aldaketa horiek finantzatzeko, besteak beste, iaztik zetorren gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina erabili da. Beraz, gastuen aurrekontuko kredituak ekitaldi bereko baliabideen bitartez finantzatu dira zati batean, eta aurreko ekitaldietakoen bitartez, beste zati batean. Aurrekontu emaitza zehazterakoan xehetasun hori kontuan hartu beharko da, hala jasotzen baitu 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 48.4 artikuluan.

Aurtengo ekitaldiko gastuen aurrekontuan, ondoko hauek dira gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinaren bitartez finantzatutako kredituak eta abenduaren 31n lortutako gauzatze maila:



ABALTZISKETA

PARTIDA	AZALPENA	B.BET.KRED. DGrekin FINAN	OBL.ONART. DGrekin FINAN.
0000.221.432.00.02	URA. LARRAITZKO INFORMAZIO GUNEA.	315,59	31,76
0000.481.335.00.01	LUK.GABEKO ERAKUN: HERRIKO JAIK	870,10	870,10
0000.601.153.20.01	AZPIEG.ETA URBAN.: HERRI BIDEEN ZOLADURA	3.419,33	3.419,33
0000.623.153.40.04	ZERB.FUNTZ.OND.GASTUAK: TRESNERIA	24,95	24,95
0000.623.342.00.01	ZERB.FUNTZION: PILOTALEKURAKO MARKADOREA	4.200,00	4.200,00
0000.626.333.00.01	ZERB.FUNTZION.INBERTS: PROIEKTOREA	665,50	665,50
0000.629.165.00.01	BESTELAKO INBERTSIOAK: EGUZKI FAROLAK	1.971,60	1.971,60
	GUZTIRA	11.467,07	11.183,24

8.- DESBIDERAPEN FINANTZARIOAK, FINANTZAKETA LOTUA DUTEN GASTUETAN

Aurtengo ekitaldi ekonomikoan, apartatu honetan zerrendatzen diren gastu-proiektuak gauzatu dira, ondoko ezaugarriak dituztenak denak ere:

- Berriazko finantzaketa dute gastu horiek, gauzatzeari espresuki lotuta.
- Urte anitzeko eragiketak dira, hau da, obligazio onartuak edota finantzaketari lotutako eskubideak ekitaldi ekonomiko batean baino gehiagotan likidatuko dira, eta ekitaldi horiei egotziko zaizkie.

Gastu mota hori urte anitzetan gauzatu izanak berarekin ekar ditzake desbiderapen finantzarioak, positiboak nahiz negatiboak, ekitaldi bakoitzean, baldin eta obligazio onartuak eta likidatutako eskubideak bat ez badatoz ekitaldien arteko portzentaje banaketan.

Ondorio horietarako, ondokoen arteko diferentzia izango da finantzaketaren desbiderapena:

- ⇒ Gastuaren hasieratik (nahiz ekitaldi honetan hasia izan, naiz aurrekoetan) abenduaren 31ra arte (aurrekontuaren likidazio eguna) onartutako eskubideak, gastu hori gauzatzeari lotuak.
- ⇒ Eta denbora tarte berean gauzatutako gastuaren zatiaren arabera onartu beharko ziren eskubideak, baldin eta sarreren exekuzioa gastuaren exekuzioarekin batera egin bazen.

Gainera, finantzaketa lotua duen gastuaren exekuzioa aurreko ekitaldi batean has litekeen neurrian, bi hauen artean bereizi beharko da:

- Desbiderapen finantzario metatuak, hau da, lehenago adierazitakoari jarraiki kalkulaturakoak.

Abaltzisketako Udala. San Juan Enparantza z/g. 20269 Abaltzisketa (Gipuzkoa)

Tel.: 943 65 29 00 – Fax: 943 65 28 75

web orria: www.abaltzisketa.eus. E-mail: udala@abaltzisketa.eus



ABALTZISKETA

- Aurtengo ekitaldiari egotz dakizkiokeen desbiderapen finantzarioak, aurrekoaren antzera kalkulatuak baina aurtengo ekitaldian likidatutako gastu eta sarrerak soilik kontuan hartuta.

Zentzu horretan, aurtengo ekitaldiko aurrekontuan jasotzen diren finantzaketa lotuko gastuak eta, halaber, horren exekuziotik datozen desbiderapen finantzarioak ondoko hauek dira:

FINANTZAKETA LOTUA DUEN GASTUA		DESBIDERAPEN FINANTZARIOAK	
PARTIDA	AZALPENA	METATUTAKOAK	EKIT.EGOZTEKOA
GUZTIRA			

Sarrera-kontzeptuen arabera, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapen finantzario metatuak honela zehaztuta daude:

SARREREN KONTZEPTUA	AZALPENA	DESBIDERAPEN METATU POSITIBOAK	DESBIDERAPEN METATU NEGATIBOAK	EKITALDIARI EGOZTEKO DESBIDERAP.
DESBIDERATZEAK, GUZTIRA				

9.- SALDO KOBRA GAITZEN ESTIMAZIOA

Hurrengo taulan jasoko da kobragaitzak edo kobraezinak diren eskubideen estimazioa.



ABALTZISKETA

KONTZEPTUA	KOBR. GABEKO HASIER. SALDOA	SALDO BERMATUA	KOBRAGAITZA %-TAN.	KOBRAGAITZA EUROTAN
2 URTETIK GORAKO ZORRAK	521,85	0,00	0,00	0,00
URTEBETETIK GORAKO ZORRAK	283,65	0,00	0,00	0,00
1. kap.: zuzeneko zergak	161,15	0,00	0,00	0,00
3. kap.: tasak eta bestelako sarrerak	122,50	0,00	0,00	0,00
URTEBETETIK BEHERAKO ZORRAK	10.367,13	0,00	0,00	0,00
1. kap.: zuzeneko zergak	957,27	0,00	0,00	0,00
3. kap.: tasak eta bestelako sarrerak	7.259,86	0,00	0,00	0,00
5. kap.: ondare sarrerak	2.150,00	0,00	0,00	0,00
GUZTIRA	11.172,63	0,00	0,00	0,00

Abaltzisketako Udala. San Juan Enparantza z/g. 20269 Abaltzisketa (Gipuzkoa)

Tel.: 943 65 29 00 – Fax: 943 65 28 75

web orria: www.abaltzisketa.eus. E-mail: udala@abaltzisketa.eus



ABALTZISKETA

10.- AURREKONTU EMAITZA

21/2003 Foru Arauak 48. artikuluan arautu du aurrekontu emaitza.

Aurrekontu emaitza magnitude ekonomikoa da, eta hauxe adierazi nahi du: ekitaldian onartutako eskubideak noraino izan diren nahikoak finantzatu behar ziren obligazioei aurre egiteko (eta, halakorik balitz, itxitako ekitaldietako zenbait eragiketa aurtengo ekitaldian deuseztatzeak sortutako defizitari aurre egiteko).

AURREKONTUAREN EMAITZA			
KONTZEPTUAK	ONARTUTAKO ESKUBIDE GARBIAK	ONARTUTAKO OBLIGAZIO GARBIAK	URTEKO EKITALDIKO AURREKONTU- EMAITZA
a) Eragiketa korronteak	423.726,85	285.112,05	138.614,80
b) Kapital-eragiketak	38.311,01	65.497,08	-27.186,07
c) Aktibo finantzarioak	0,00	0,00	0,00
d) Pasibo finantzarioak	0,00	3.660,45	-3.660,45
1. URTEKO EKITALDIKO AURREKONTU- EMAITZA (1=a+b+c+d)	462.037,86	354.269,58	107.768,28
KONTZEPTUAK	AINZATETSITAKO ESKUBIDEAK EZEZTATZEA	AINZATETSITAKO OBLIGAZIOAK EZEZTATZEA	ITXITAKO EKITALDIETAKO ADURREKONTU- EMAITZA
a) Eragiketa korronteak	-0,00	-0,00	0,00
b) Kapital-eragiketak	-0,00	3.448,50	3.448,50
c) Aktibo finantzarioak	0,00	0,00	0,00
d) Pasibo finantzarioak	0,00	0,00	0,00
2. ITXITAKO EKITALDIETAKO AURREKONTU-EMAITZA (2=a+b+c+d)	-0,00	3.448,50	3.448,50
3. DOIKUNTZEN AURREKO AURREKONTU-EMAITZA (1+2)			111.216,78
DOIKUNTZAK :			
a) Gastu orokorretarako diruzainzako gerakinarekin finantzatutako kreditu gastatuak			11.183,24
b) Ekitaldiko finantziazio-desbideratze negatiboak			0,00
c) Ekitaldiko finantziazio-desbideratze positiboak			0,00
4. DOIKUNTZAK GUZTIRA (4=a+b-c)			11.183,24
AURREKONTU- EMAITZA DOITUA (3+4)			122.400,02



ABALTZISKETA

11.- DIRUZAINZAKO GERAKINA

21/2003 Foru Arauak 48. artikuluan arautu du diruzaintzako gerakina.

Diruzaintzako gerakina magnitude finantzarioa da, eta entitateak epe laburrera izango duen likideziaren soberakina adierazten du. Bestela esanda: diruzaintzako gerakina ondoko egoera gertatuko balitz entitateak izango lukeen dirutzak osatzen du: epe laburrera kobratu gabeko eskubideen epemuga amaitu eta abenduaren 31n kobratzea, eta bilketa horren emaitzarekin eta data horretako fondo likidoekin epe laburrera ordaindu gabeko obligazioei aurre egitea, horien epemuga ere abenduaren 31n amaituko litzatekeela pentsatuz.

Hiru dira diruzaintzako gerakinaren osagaiak:

- Kobrantza zalantzarriko saldoetarako hornidura.
- Gehiegizko finantzaketa lotua.
- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina.

Kobrantza zalantzarriko saldoetarako hornidura enteak kobragaitz edo kobraezintzat hartutako eskubide kobratu gabeen estimazioa da. Kobratu gabeko eskubide horiek 9. apartatuan zehazten dira.

Gehiegizko finantzaketa lotuak bi osagai ditu. Alde batetik, finantzaketa lotua duten gastuetan metatutako desbiderapen finantzario positiboek osatzen dute eta desbiderapen horiek ekitaldiaren amaieran kalkulatu dira erakunde finantzatzaile bakoitzarentzat eta, bere sorreran datzan gastu bera finantzatzeko erabili beharko da, edota halakorik balitza, proiektatu den gastua osorik edo zati batean burutu ezin izanak nahiz burutzeari uko egin izanak sortutako obligazioak estaltzeko. Bestalde, kontuan hartzen ditu baita ere, entitateak zuzkitu dituen beste hornidura batzuk.

Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina kalkulatzeko, diruzaintza gerakinari estimatutako kobrantza zalantzarriko saldoak eta gehiegizko finantzaketa lotua kenduko dizkiogu.

DIRUZAINZAKO GERAKINA		
Kontu zbk.	Osagaiak	Ekitaldia
57	1. (+) funts likidoak	294.891,78
	2. (+) Kobratzeke dauden eskubideak	11.414,13
430,433,437,438	-(+) urteko aurrekontukoak	10.367,13
431,434,439	-(+) itxitako aurrekontutakoak	805,50
440,442,449,456,470, 471,472,548,550	-(+) aurrekontukoak ez diren eragiketakoak	241,50
	3. (-) Ordaintzeko dauden obligazioak	41.192,83
400	-(+) urteko aurrekontukoak	13.422,44
401	-(+) itxitako aurrekontutakoak	0,00

Abaltzisketako Udala. San Juan Enparantza z/g. 20269 Abaltzisketa (Gipuzkoa)

Tel.: 943 65 29 00 – Fax: 943 65 28 75

web orria: www.abaltzisketa.eus. E-mail: udala@abaltzisketa.eus



ABALTZISKETA

165,166,180,185,410, 414,419,453,475,476, 477,502,515,516,521, 560,561	-(+)	aurrekontukoak ez diren eragiketekoak	27.770,39	
		4. (+) Oraindik aplikatu gabeko partidak		0,00
554,559	-(-)	behin betiko aplikatzeko dauden egindako kobrantzak	0,00	
555, 5581, 5585	-(+)	behin betiko aplikatzeko dauden egindako ordainketak	0,00	
		I. Diruzaintzako gerakina guztira (1 + 2 – 3 + 4)		265.113,08
4900,4901,4902,4903		II. Kobrantza zalantzarriko saldoak		0,00
		III. Gehiegizko finantzaketa lotua		0,00
		IV. Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (I – II – III)		265.113,08

Beraz, aurtengo ekitaldia likidatzean diruzaintzako gerakina guztira 265.113,08 eurokoa izan da; horietatik:

- ⇒ 0,00 euro, hau da, kobrantza zalantzarriko saldoen hornidura, kredituen zenbatekoen balio-galera zuzkitzera zuzendu da.
- ⇒ 0,00 euro, hau da, gehiegizko finantzaketa lotua. Atal honek bi osagai ditu; alde batetik, finantzaketa lotua duten gastuetan metatutako desbiderapen finantzario positiboek osatzen dute eta bere sorreran datzan gastu bera finantzatzeko erabili daiteke; eta bestetik, kontuan hartzen ditu entitateak zuzkitu dituen beste hornidura batzuk.
- ⇒ 265.113,08 euro, hau da, gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina, eta berau erabili ahal izango da, kreditu aldaketak finantzatzeko (bai finantzaketa lotua duten gastuetarako eta baita gastu orokorretarako ere).



ABALTZISKETA

12.- EMAITZAK EGIAZTATZEA

KONTZEPTUA	EURO
Aurreko ekitaldiko diruzaintzako gerakin gordina	153.896,30
+ Aurtengo ekitaldiko aurrekontu-emaiza (doitu aurretik)	111.216,78
Aurtengo ekitaldiko diruzaintzako gerakina guztira	265.113,08

13.- KREDITU GERAKINAK

Kreditu gerakinak, hain zuzen, behin betiko kredituei horien kargura onartutako obligazioak kenduz kalkulatzen dira.

21/2003 Foru Arauak 44.1 artikuluan agintzen duenez, ekitaldian sortutako obligazioei aurre egiteko beharrezkoak ez diren aurrekontuko ordainketa-kredituak (hau da, kreditu gerakinak) zuzenbide osoz baliogabetuko dira abenduaren 31n, ondorengo ekitaldiko aurrekontuari txertatu behar zaizkionean izan ezik.

Goian aipatutako Foru Arauak 32.1 artikuluan jaso du zein kasutan izango dugun kreditu gerakin horiek txertatzeko aukera. Hona hemen zerrenda:

- Transferitutako kredituak eta kreditu gehigarriak, baldin eta bi kasuetan ekitaldiko azken hiruhilekoan onartu badira.
- Erabilitako gastuetarako kredituak (D fasea), baldin arrazoi justifikatua dela-eta obligazioa ezin izan bada onartu.
- Gaitutako kredituak eta lotutako sarreraren menpeko beste kreditu batzuk.
- Kapital eragiketarako kredituak.

Ez-erabilgarritzat hartutako kredituak inola ere ezingo dira txertatu. Aurrekontuan txertatutako kredituek finantzatutako obligazioak, onartzekotan, txertaketaren ekitaldi berean onartu beharko dira; kreditu horiek, beraz, ezingo dira hurrengo urteko aurrekontuan berriro txertatu, lotutako sarrerak dituzten kapital eragiketarako kredituak izan ezik.

Horren arabera, ondoko taulan zehaztuta daude aurtengo ekitaldiaren likidazioaren emaitza diren eta txerta daitezkeen kreditu gerakinak. Txertaketa zurrizko, aurreko lau kasuetatik zeinetan aurkitzen diren ere zehazten da bertan. Nolanahi ere, kredituak txertatzea aukerakoa da eta, egitekotan, ekainaren 30a baino lehen onartu beharreko kreditu aldaketarako espediente baten (edo batzuen) bitartez egin beharko da.



ABALTZISKETA

PARTIDA	AZALPENA	GERAKINEN ZENBATEKOA	EGOERA				
			a	b	c	d	e
6 0000.100.000.00.00 2017	LANGILEGOAREN GASTUAK	26,28	X				
6 0000.200.171.00.00 2017	ONDASUN ARRUNT.ETA ZERBITZUEN GASTUAK	186,26	X				
6 0000.200.432.00.00 2017	ONDASUN ARRUNT.ETA ZERBITZUEN GASTUAK	271,53	X				
6 0000.200.342.00.00 2017	ONDASUN ARRUNT.ETA ZERBITZUEN GASTUAK	191,90	X				
6 0000.200.333.00.00 2017	ONDASUN ARRUNT.ETA ZERBITZUEN GASTUAK	147,37	X				
6 0000.200.163.00.00 2017	ONDASUN ARRUNT.ETA ZERBITZUEN GASTUAK	11,37	X				
6 0000.400.162.00.00 2017	TRANSFERENTZI ARRUNTAK	2.242,11	X				
1 0000.601.323.00.01 2017	ESKOLA ETA OSTATUAREN EREMUA HANDITZEA	59.166,00	X				X
1 0000.692.412.00.01 2017	MALLOA	3.000,00					X
1 0000.722.943.00.01 2017	BESTE ENTITATEEI:MENDI NEKAZARITZA	583,35					X
1 0000.781.333.00.01 2017	BEHEKO KALEKO KOPROPIETARIOAK	1.170,44					X
1 0000.933.011.00.01 2017	EPE LUZERAKO MAILEGUEN AMORTIZAZIOA	9,55					X
TXERTA DAITEZKEEN KREDITUEN GUZTIZKOA		67.006,16					
TXERTATU EZIN DIREN KREDITUEN GUZTIZKOA		24.745,03					
KREDITU GERAKINEN GUZTIZKOA		91.751,19					

14.- ONDORIOAK

Aldekoa.

Abaltzisketan, 2018ko martxoaren 21ean.
Kontuhartzailea



ABALTZISKETA

2017KO ALTXORTEGI GERAKINEKO LABURPENA

1- Altxortegiko izakin likidoak: 2017/12/31an Kaxan eta Kutxan dagoena	294.891,78 €
2- Sarrera-Aurrekont. Zordunak: Urteko ekitaldia: 2017/12/31 kobratu gabe geratu direnak:	10.367,13 €
Ibilgailuen zerga 2017:	957,27 €
Zabor errezihoak 2017:	7.259,86 €
Kobratzeko errentak. Tolomendi, Bizibiziki:	2.150,00 €
3- Sarrera-Aurrekont. Zordunak: Ixitako ekitaldia: 2017/12/31 kobratu gabe geratu direnak:	805,50 €
Ibilgailuen zerga 2014:	158,19 €
Ibilgailuen zerga 2015:	323,66 €
Ibilgailuen zerga 2016:	161,15 €
Zaborren tasa 2015	40,00 €
Zaborren tasa 2016	122,50 €
4- Aurrekontuz kanpoko zordunak: 2017/12/31an Patrimonialean kobratzeko dagoena	241,50 €
Alokairuen B.E.Z.kobratzeko	31,50 €
Hazienda. 2017ko B.E.Z.	210,00 €
5- Gastu-Aurrekont.Hartzek.: Urteko Ekitaldia: 2017/12/31an ordaindu gabe geratu direnak	13.422,44 €

Abaltzisketako Udala. San Juan Enparantza z/g. 20269 Abaltzisketa (Gipuzkoa)

Tel.: 943 65 29 00 – Fax: 943 65 28 75

web orria: www.abaltzisketa.eus. E-mail: udala@abaltzisketa.eus



ABALTZISKETA

2. Kapituluako faktura desberdinak:	5.936,52 €	
Tolosaldeko Mankom.Azaroa	2.068,93 €	
Tolomendi: IKT-ko langilea. Abendua	152,50 €	
Nikolas Barandiararan. Eskola eta ost.zorua	1.028,50 €	
Anduitz. Pilotalekuko markadorea	4.235,99 €	
6- Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak: 2017/12/31an patrimonialean ordaintzeko dagoena		27.770,39 €
Itzuli beharreko fidantzak:	17.000,00 €	
1- 2011/05/27an Bizibiziki: Larraitzko parkea	5.000,00 €	
2- Jonathan Valdivieso y otra. Ostatuko fidantza	4.000,00 €	
3- Juan Jose Arregi. Sasiain barrena baserriko fidant	8.000,00 €	
P.F.E.Z. 2017ko 4. hiruhilabetea	4.804,65 €	
Gizarte Seg.eta Elk. ordaindu beharrekoa	4.974,63 €	
Euskaltelen konpentsazioak. 2007-2012ko itz.	991,11 €	
8- Altxortegi-gerakin gordina: 2017/12/31an geratzen den gerakina eta 2018an erabili daitekeena		265.113,08 €

Abaltzisketako Udala. San Juan Enparantza z/g. 20269 Abaltzisketa (Gipuzkoa)

Tel.: 943 65 29 00 – Fax: 943 65 28 75

web orria: www.abaltzisketa.eus. E-mail: udala@abaltzisketa.eus



TXOSTENA

AURREKONTU EGONKORTASUNAREN ETA FINANTZA IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK ETA GASTU ARAUA BETETZEARI BURUZKOA

2017. URTEKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

ARAUDI APLIKAGARRIA

- * 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.
- * 1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena.
- * Diputatuen Kontseiluaren Akordioa, 2016(e)ko azaroaren 8(e)an, Jarraibidea onartzen duena finantza tutoretzaren eskumena garatzeko Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan.
- * Diputatuen Kontseiluaren Akordioa, 2017ko martxoaren 7koa, Gipuzkoako toki entitateek 2017ko aurrekontuak prestatu, onartu eta gauzatzeko aplikatu beharreko jarraibidea aldatzen duena.

FORU ARAUAREN 1.2.a) ARTIKULUKO ENTITATEAK (administrazio izaera dutenak)

1. ENTITATE ZERRENDA:

1. ABALTZISKETA
- 2.
- 3.
- 4.

2. HELBURUAK BETETZEARI BURUZKO EGIAZTAPENA

Aurrekontuen egonkortasuna

Entitate honen finantzaketa ahalmena/premia, SEC Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema

Abaltzisketako Udala. San Juan Enparantza z/g. 20269 Abaltzisketa (Gipuzkoa)

Tel.: 943 65 29 00 – Fax: 943 65 28 75

web orria: www.abaltzisketa.eus. E-mail: udala@abaltzisketa.eus



ABALTZISKETA

Europarraren arabera, honako hau izan da 2017. urtean:

Superabita:

111.428,73

Ondorio horretarako, ez denez aurreikusten ondorengo doikuntzarik beharko duen eragiketa adierazgarririk, kalkulu hori 1etik 7ra bitarteko kapituluetakoa sarreren eta 1etik 7ra bitarteko kapituluetakoa gastuen arteko diferentziaren bitartez egin da, goian zerrendatutako entitateen kontuak bateratuta.

2017. urterako ezarritako helburua defizita zero izatea da.

Hori dela eta, toki entitate honek betetzen du aurrekontu egonkortasunaren 2017. urterako helburua.

Finantzen iraunkortasuna

2017-12-31n, goian zerrendatutako entitateen zor bizia, guztira, honako hau izan da, 2017. urteko sarrera arrunten aldean:

Zor bizia:

%0,00

Kalkulua egiteko, 2017-12-31ko zor bizia erabili da, indarrean ziren eragiketa guztiak kontuan hartuta, bai epe luzekoak, bai epe laburrekoak, abaletatik eratorritako arriskua barne.

Zor biziaren zenbatekoan ez dira sartu UFFFarengatik itzuli gabe gelditzen diren saldoak.

2017. urterako ezarritako helburua zor bizia %77 baino handiagoa ez izatea da.

Hori dela eta, toki entitate honek betetzen du finantza iraunkortasunaren 2017. urterako helburua.

Gastuaren araua

2017. urtean gastu konputagarria eta gastuaren muga honako hauek izan dira:

Abaltzisketako Udala. San Juan Enparantza z/g. 20269 Abaltzisketa (Gipuzkoa)

Tel.: 943 65 29 00 – Fax: 943 65 28 75

web orria: www.abaltzisketa.eus. E-mail: udala@abaltzisketa.eus



ABALTZISKETA

Gastu konputagarria:	281.907,94
Gastuaren muga:	307.815,40

Aurreko kalkulua egiteko, goian zerrendatutako entitateen datu bateratuak erabili dira, ondoko taulan xehatzen den moduan:

	<u>2017</u>	<u>2016</u>
Gastu ez finantzarioak (1-7 kapituluak)	350.609,13	444.699,41
Zorraren interesak	0,00	3,08
SEC doikuntzak	0,00	0,00
Admin. publikoen ekarpen finalistekin finantzatutako gastua	<u>68.701,19</u>	<u>143.212,10</u>
Gastu konputagarria	281.907,94	301.484,23
Gastuaren hazkundearen muga:	%2,10	
Araudiaren aldaketen eragina:	0,00	
Gastuaren muga	307.815,40	

Hori dela eta, toki entitate honek betetzen du 2017. urterako gastuaren araua.

3. ONDORIOAK

Toki entitate honek bete egiten ditu aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren arloetan 2017. urterako ezarritako helburuak eta gastu araua. Beraz, toki entitate hau ez dago behartuta plan ekonomiko finantzarioa onartzera.

Mahaikideek **ERABAKI DUTE:**

1. 2017ekitaldiko likidazioari onarpena ematea.
2. 2017ko Kontu Orokorrari haserako onarpena ematea, eta Gizpuzkoako Aldizkari ofizialean argitara ematea, egoki iritzitakoan dagokion alegazio, errekurso edo antzekoa tarteratzeko.
3. Jendaurreko epealdia iragan eta alegaziorik tarteratu ezean, behin betikotzat onartuta geratuko da erabaki berririk hartu beharrik gabe.



ABALTZISKETA

7- ALKATEAK EMAN DITUEN EBAZPENEN BERRI EMATEA 2018-06TIK 2018-21 ARTE.

Alkateak, ondorengo ebazpenak eman dituela jakitera ematen da :

- 2018-06 Ondasun Higiezinaren gaineko zergaren hobariak
- 2018-07 Trakzio mekanizkozko ibilgailuen gaineko zergaren hobariak.
- 2018-08 Trakzio mekanizkozko ibilgailuen gaineko zergaren salbuespenak
- 2018-09 Ipintza-berri baserriko bizitza baten bizigarritasuna.
- 2018-10 Otsaileko fakturak.
- 2018-11 Su egurraren enkantea
- 2018-12 Juan Ignacio garmenaren obra baimena
- 2018-13 Apirileko fakturak
- 2018-14 2019ko jai eguna
- 2018-15 2018ko trakzio mekanizkozko ibilgailuen errolda.
- 2018-16 Plusvalia.
- 2018-17 Segregazioa. Olano barrena Zabala.
- 2018-18 Kreditu aldaketa.
- 2018-19 Kreditu aldaketa.
- 2018-20 Kredituen inkorporazioa.
- 2018-21 Maiatzeko fakturak.

Mahaikideek, Alkatearen ebazpenen berri jakin dute eta ontzat eman dituzte.

8- SAN JUANETAKO ESKAERAK, HAINBAT POSTU JARTZEKO GUNEAREN INGURUAN DAGOKIONA ERABAKITZEA.

San Juan jaietarako postuak jartzeko bi eskaera jaso direla jakitera ematen da:

1. Adrian Dosantos Clemente, ohe elastikoak, patoen postua, txurreria eta tiropitxoia jartzeko.
2. Justino Dosanjós Morgado. Bokadilloak saltzeko gunea jartzea nahi du.



ABALTZISKETA

Abaltzisketako enparantzan jai egunetan egoten diren ekintzak kontutan hartuta, horrelako postuak jartzeko gunea bakarra elizaren ondoan dagoen txokoan enparantza sartu aurretik izendatzea erabaki da.

Ez elizaren atzean eta ez beste inon ere ezin izango da honelako gauzik jarri. Beraz, urtero bezala, tiropitxoa eta goxoki eta jostailuak saltzen dituzten lekua bakarrik jarri ahal izango dira, izendatutako lekuan.

9- GALDERAK ETA ESKAERAK.

Bat.- Txalburu eskolako ikasleen eskaera.

Txalburu eskolako ikasleak, herriko enparantza kotxerik gabe izatea nahiko luketela, eta eskaera kontutan hartzea eskatzen dutela jakitera eman da.

Eskaera honen berri jakin ondoren, bertan bildutako kideek zera adierazten dute:

- Korporazioak ere enparantza kotxerik gabe ikustea nahiko lukela, baina Abaltzisketako hirigunean aparkatzeko arazo handiak daudela, eta horregatik enparantza ere aparkatzeko erabiltzen dela.
- Baina, Txalburu eskolako ikasleek interesa dutela ikusita, agian elkar lan bat egin dezakegula pentsatzen da, lehendabizi gaur eguneko egoera aztertu eta baloratu eta ondoren proposamenak eginez.
- Gaur eguneko egoera aztertzerakoan, Abaltzisketako hirigunean aparkatzeko marra zuria duten plazak zenbat diren zenbatu, eguneko ordu desberdinetan zenbat ibilgailu aparkatuta egoten diren zenbatu, eta horrela, zenbat plaza falta diren ondorioztatu genezake.
- Eta proposamenak egiteko, hiriguneko planoak igortzen zaizue, zuen aldetik aztertu ea proposamenak bideratzeko.
- Ibilgailuek aparkatzeaz gain, oinezkoen seguritatea ere beharrezkoa da, eta oinezkoen seguritatea izateko nondik nora ibili behar duten trazatu



ABALTZISKETA

daiteke, zenbait puntuetan oinezkoek bakarrik ibiltzeko modua dago eta beste zenbait kasuetan ibilgailu, bizikleta eta traktorekin batera errepidea elkarbanatu beharra dago. Ahal bada, azken kasu honetan, elkarbanatu behar den trazadua ahal den txikinea izatea komeni da.

Eta guzti hau azaldu ondoren, ERABAKI DA:

1. Txalburu Eskolako ikasleek bideratu duten eskaera kontutan hartzea.
2. Txalburu eskolako ikasleei gomendatzen zaien azterketa, alde batetik gaur eguneko egoera aztertzea (ibilgailuak zenbatu, gaur eguneko aparkalekuak zenbatu, plazan aparkatzen diren ibilgailuen zenbatekoa ikusi, e.a.) eta bestetik, hirigunea aztertu eta proposamenak bideratzea, aparkatzeko modu eta gune berriak proposatuaz.
3. Eta, azkenik, guztien seguritateko oinezkoen nondik nora ibili daitekeen proposatzea.

Bi.- Ortzadar Elkartearen eskaera. Ortzadar Elkartea, adimen limitatua duen pertsonen autonomi pertsonala eta soziala sustatze lanetarako denak, Abaltzisketako udalari, 3.000 eurotako laguntza eskatu diola jakitera eman da.

Abaltzisketako Udalak ERABAKI DU:

Eskatutako diru laguntza, 3.000 eurotako, Udal honentzako handiegia dela eta laguntza ez onartzea.

Hiru.- 2017-2018 ikasturterako herri txikien Areto Furbolean parte hartzen ari direla alebin kategorian eta taldearen kuota eta entrenatzailearen aseguroa ordaintzeko 150,00 eurotako diru laguntza eskatu dela jakitera eman da.

Urtero bezala, aurten ere, ekintza hau laguntzeko 150,00 eurotako laguntza ematea erabaki da.



ABALTZISKETA

Lau.- Alkateak, ondoren agertzen den dokumentua aurkeztu du, onarpena eman ahal izateko:

**ENIRIOTIK IGARATZAKO TXABOLETARA DOAN BIDEA
MOTORDUN IBILGAILUENTZAT EGOKITZEKO PROIEKTUA
DELA ETA INPAKTUAREN EBALUZIO ARRUNTAREN
AZTERKETA**

Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendietako eta natura Inguruneko Zuzendaritza Nagusiak, Udal honi jakinarazi dio, “**ENIRIOTIK IGARATZAKO TXABOLETARA DOAN BIDEA MOTORDUN IBILGAILUENTZAT EGOKITZEKO PROIEKTUA**” dela eta, Ingurumen ebaluaketa arruntaren prozedura hasia dagoela, Ingurumeneko zuzendariak 2018ko apirilaren 26ean emandako ebazpenaren arabera eta bertan hainbat dokumentu jaso dituela.

Dokumentu horiek aztertu eta abenduaren 9ko 21/2013 legearen 37 artikulua ezarritakoari jarraituz, hogeita hamar egunetako epean, dagokiona esateko, iritzia emateko, alegazioak tarteratzeko, e.a. igortzen duela Udal honetara, 2018ko maiatzaren 14ko datarekin sarrera eman zitzaizlarik.

Abaltzisketako Udalak, dokumentuak aztertu eta proiektuaren nondik norako hauek ikusi ditu:

Bat.- Proiektuaren helburua, Eniriotik Igaratzako txaboletara doan bidea motordun ibilgailuentzako egokitzea aurreikusten dela.

Bi.- Aipatutako eremu honetan txostenak dioenez **“Zuzeneko onuradunak saroi hauetako txabolak erabiltzen dituzten artzainak izango dira:**

“Laburbilduz, aukeratutako pista 2.701 m luze izango da guztira, eta ibiltzeko bidearen zabalera 3 metrokoa izango da (erauzitako ezpondaren oinarritik betetako ezpondaren gailurreraino), eta 3,5 m-ko gutxieneko zabalera handituko da aurreikusi den bihurtze i txi bakarrean. Trazatuaren zenbait puntutan zabaluneak izango ditu, ibilgailuak guru tza tu ahal izateko.



ABALTZISKETA

Errodadura zorua macadam motakoa izango da; aurreikusi da balastoa erabiliko dela gune hezeenetan, eta ez da alde batera utzi enkatxo harria erabiltzea lurzoru bigunagoa duten inguruak sendotzeko.

Jarduketak zuzenean emango die zerbi tzu a Doniturrieta-Azpikoako (2 txa bola, 1.035 ardi), Doniturrieta Garakoako (2 txabola, 760 ardi) eta Beaskineko (txabola 1, 255 ardi) saroieta txabolak erabiltzen dituzten artzainei. Abere larriei dagokienez hiru abere-talde sedentariori emango lieke zerbitzua (bata behiena, bestea zaldiena), bakoitzeko 20 aberetik gora, baita talde txikiagoei ere.

Onura ekarriko lieke zeharka, jarduketa eremutik gertu geratzen direlako, Pagabeko (2 txa bola, 832 ardi eta 23 behor) eta Kutixaoko (txa bola 1, 457 ardi) txa boletako ar tza inei, eta gutxi gorabehera 400-500 abelburu larri gehiagori, horiek probetxua ateratzen baitiete Eniriotik hasi eta Ezkizubarrenako, Pagabeko gune batzuetako, Doniturrietako, Beaskineko, Igaratzako, Ontzanburuko, Igaratzako Arrateko eta Nafarroako aldeko gune batzuetako larreei.

Azkenik, eta bertartzeari dagokionez, zenbatetsi da ustiapen garaian bidea batez beste 5 autok erabili ahal izango luketela eguneko, aste barruan, maiatzetik irailera, eta 7 autok eguneko, asteburuetan; urteko gainontze ko aldietan asteko auto 1 era edo 2 autora jaitsiko litzateke. Egun egiten den bideen kontrola egiteari jarraituko zaio, eta baimendutako erabiltzaileei bakarrik utziko zaie sartzen.”

Hiru.- Lehen dagoen oinezko bidea motordun ibilgailuentzat erabilgarri izateko zabaltzea dela.

Lau.- Bidearen egokitzapena eta bidea egiteko, ingurumeneko legeak ezarritako zenbait neurri proiektuan jasota daudela ikusten da: maldak, ezpondak, e.a. ahal den heinean saihestu eta ezinezkoa balitz ingurumenean eragin gutxiago izateko birlandatze lanak aurreikusiak daudela.

Bost.- Bidearen nondik norakoak erabaki aurretik, alternatiba ezberdinak hausnartu direla eta ingurunean kalte gutxiena eragiten duena aukeratu dela.

Sei.- Eta eraberritu nahi den bidearen erabilera ere kontrolatua izango dela esaten da, 4x4 ibilgailu eta erremolkeak artzainek edo abeltzainek egunerokotasunean bere jarduera bidez sortzen diren beharrei erantzuteko soilik.



ABALTZISKETA

Gainerakoan mendiaren zaintzarako eta kasu berezietarako (ikerketak, erreskateak, etabar.).

Proiektuaren atal hauek ikusi eta ondorengo **hausnarketak kontutan hartuaz** :

Bat.- Lehen sektorearen desagertze arriskua alde batetik, gure inguruneak sektorearen beharra ere baduela bestetik, orain arte iraun duen bezala aurrera begira ere irauteko, bien artean oreka bat sortu behar dela, denbora aurrera doan heinean, lehen sektoreari lanak errazteko moduak ikusi behar direla.

Bi.- Lehen sektoreak aurrera jarraitzeko eta iraun ahal izateko, lan baldintzak eta bizi kalitatea zaindu eta hobetzea derrigorrezkoa dela, beste sektore guztietan gertatzen baita eta hemen ere kontutan hartu beharko litzatekeela, oinarrizko zerbitzu bat eskaintzen duelako.

Hiru.- Lehen sektorearen bizitza kalitatea eta lan baldintzak hobetzeak, belaunaldi berriek ere sektore honetan lanean hasteko onurak eta aukerak ikustea eramango gaituela. Gizarteak honetaz ere jabetu egin behar duela, lehen sektorea beharrezkoa dela, lehenengo gizarteari eskaintzen dion oinarrizko zerbitzuengatik, elikadura eta bestetik gure ingurunean sortzen duen orekagatik.

Lau.- Lan baldintzak edo bizi kalitatea hobetzeko, sektorearen iraupena ziurtatzeko, proiektu honetan aipatzen diren azpiegiturak burutzea egokia ikusten dela, erabilera zuzena eginez.

Bost.- Azpiegitura hauek, lehen sektorearen erabiltzaileentzat gain, beste beharretarako ere onurak direla, hain zuzen ere, mendiaren zaintza, erreskate, ikerketa eta horrelako kasuetarako, azpiegiturak izatea guztion onurarako delako.

Sei.- Aipatutako eremua oso nekosoa eta gogorra egiten dela zenbait kasuetan. Irisgarritasuna guztion eskubidea dela eta beharrezkoa den kasuetan ibilgailuez iristeko aukera izan behar dutela, adinekoek edo egunerokotasunean lanean jarduten duten abeltzainek, denboraldi baterako elbarritasun egoeran suertatzen direnen kasuetarako, e.a., irtenbidea izateko. Aipagarria aldi berean



ABALTZISKETA

emakumezkoak era badirela txabola horietan eta haurrak ere bai. Hauen heziketa, lagun artea eta familiako giroa uztartu beharra daudela.

Guzti honengatik, Abaltzisketako Udalak, honako IRITZIA agertzen du, proiektu honen aurrean:

Aipatu den proiektuaren nondik norakoak kontutan hartuta, honen inguruan egindako hausnarketaren ondorioak ikusita, **PROIEKTUARI ONARPENA EMATEA ETA ALDEKO IRITZIA AGERTZEA.**

Mahaikideek ERABAKI DUTE:

1. Alkateak aurkeztu duen idatziari onarpena ematea.
2. Eta dagokion zuzendaritzara bideratzea.

Eta besterik ezean bilera amaitutzat eman zuen Alkateak , gaueko 21:40 etan .

Alkateak

Idazkariak